

HERRITARREN ETA GIZARTEAREN PARTAIDETZARAKO FORU PLANA

2024
2027



 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Jarraipen Txostena
ABENDUA, 2024

Aurkezpena

Herritarren partaidetzak funtsezko lekua du Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueran, herritarrek lagun dezaten politika publikoak zehazten eta politika horiek gauzatzen edo kudeatzen diren moduak definitzen, atondutako bideen eta prozeduren garapenaren bitartez.

Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2024-2027ko Foru Plan honek beste urrats bat eman nahi du Bizkaiko Foru Aldundiak parte-hartzearekin duen konpromisoan. Konpromisoa Bizkaia Denontzat Agintaldi Planean dago jasota, “Bizkaia Aldundi indartsu, gertu eta moderno batekin” ardatzaren barruan, eta bertan berariaz ezartzen da herritarren partaidetzarako espazioak eta dinamikak sustatzeko helburua. Horretarako, Planak **17 jarduera** biltzen ditu **Bizkaian partaidetza gehiago eta hobea sustatzera eta bultzatzera bideratuak**. Partaidetza esanguratsua maila kuantitatiboan eta kualitatiboan, Bizkaiko kolektibo, udalerri eta eskualde guztietara helduko dena, Aldundiaren kudeaketa-dinamiketan erabat txertatuta egongo dena, eta Bizkaiko garapen jasangarrian aurrera egiten jarraitzeko ezinbestekoak diren politika eta zerbitzu publikoei adimen kolektiboaren, adostasunaren, lankidetzaren eta konpromisoaren balio garrantzitsua emango diena.

Plana 2024ko ekainean onartu zen. **Txosten honek 2024ko abenduaren 31ra arte egindako aurrerapenak erakusten ditu.**

1- PARTE HARTZEKO AUKERAK ETA ERRAZTASUNAK

- 1.1- “Partaidetza Bizkaia” marka garatzea eta duen balioa nabarmentzea
- 1.2- Bizkaiko Foru Aldundiaren Partaidetzarako Atariaren ikusgarritasuna eta sarbidea hobetzea
- 1.3- Foru-estrategiak, -planak eta -arauak lantzean partaidetza sustatzea, ahal den neurrian nahitaezko partaidetza-prozesu administratiboetatik haratago joanez
- 1.4- Foru-zerbitzuak definitzearekin, birdefinitzearekin eta hobetzearekin lotutako partaidetza sustatzea
- 1.5- Eztabaida-partaidetzan sakontzen jarraitzea
- 1.6- “Bizkaitarren Sarea” sendotzea partaidetza-aukerak zabaltzeko kanal gisa
- 1.7- Haurren eta nerabeen partaidetza sustatzeko proiektu espezifiko bat garatzea

2- BARNE-GAITASUNAK ETA PARTAIDETZAREN KUDEAKETA

- 2.1- Bizkaiko Foru Aldundian partaidetzarekin lotutako barne-antolamendua taxutzea, bere garapena eta hobekuntza bultzatzeko
- 2.2- Foru-langileen partaidetza-arloko gaikuntza areagotzea
- 2.3- Aldundiak parte hartzeko sustatzen dituen organoen, espazioen eta prozesuen funtzionamendua homogeneizatzea eta sistematizatzea
- 2.4- Partaidetza-jardueretan komunikazio argia neurri handiagoan txertatzea

3- LANKIDETZA PARTAIDETZA ARLOAN

- 3.1- Bizkaiko Toki Entitateetan partaidetza sustatzeko laguntza ekonomikoen ildoari eustea
- 3.2- Bizkaiko Toki Entitateen artean partaidetza-arloko lankidetzak eta ikaskuntza partekatua bultzatzea
- 3.3- OGP Euskadi proiektuan eta Aldundiak beste erakunde eta eragile batzuekiko lankidetzaren bidez bultzatzen duen parte-hartzea hobetzea ahalbidetzen duten beste ekimen batzuetan aktiboki parte hartzen jarraitzea


4- GIZARTE-AKTIBAZIOA ETA BOLUNTARIOTZA

- 4.1- “BizkaiaGara” ekimena garatzea eta duen balioa nabarmentzea, Bizkaiko herritarrek gizarte-aktibazio eta -konpromiso handiagoa izan dezaten.
- 4.2- Bizkaiko enpresek boluntariotzarekin duten konpromisoan sakontzea
- 4.3- Boluntariotza-jarduerak sustatzea ingurumenaren eta kulturaren eremuetan

Planean jasotako jardueren gauzatze-maila 2024ko abenduan: IKUSPEGI OROKORRA

2024ko abenduaren 31ra arte, **14 jarduera** gauzatzen ari dira (guztien % 82). **Gainerakoak (3, % 18) abian jartzeko prozesuaren hainbat egoeratan daude.**

Beheko grafikoan ikus daiteke jardueren egoera 2024/12/31n.



BURUTUA	Jarduera horrek azken mugarri argia zuen, eta dagoeneko burutu da
ARIBIDEAN	Hasitako jarduera hau egikaritze-fasean dago
ABIAN JARTZEKO PROZESUAN	Jarduera hau oraindik ez da hasi eta diseinu- edo definizio-fasean dago
ATZERATUA/ BERTAN BEHERA UTZITA	Jarduera hau oraingoz ez da egingo

Planean jasotako jardueren gauzatze-maila 2024ko abenduan: IKUSPEGI XEHATUA

Ondoren, Planean jasotako jarduera bakoitzak 2024ko abenduan zuen aurrerapen-egoera xehatzen da.



1.1 jarduera- "PARTAIDETZA BIZKAIA" MARKA GARATZEA ETA DUEN BALIOA NABARMENTZEA

Justifikazioa eta helburuak	Parte-hartze eraginkorrak eskatzen du herritarrek eta lurralde bateko eragileek bertan egiten diren partaidetza-jardueren ezagutza handia izatea. Ezagutza hori ez da erraza gaien zabaltasuna handia denean. Partaidetza-marka bat izatea ezagutza hori errazten duen elementu bat da; beraz, garrantzitsutzat jotzen da Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako partaidetza-jarduerak identifikatzen laguntzeko moduko marka bat sortzea.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	"Partaidetza Bizkaia" marka garatu da. Marka partaidetzarekin lotutako prozesu eta jarduera guztietan erabiltzen da Bizkaian. Hurrengo urratsa Partaidetza Atari berrian sartzea da.

1.2 jarduera. BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO PARTAIDETZARAKO ATARIAREN IKUSGARRITASUNA ETA SARBIDEA HOBETZEA

Justifikazioa eta helburuak	Bizkaiko edozein herritarrek parte hartzeko duen eskubidea modu errazean gauzatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak garatzen dituen parte-hartze jardueri buruz informatzeko aukera ematen duen Partaidetzarako Atari askoz osoagoa eta intuitiboagoa sortzea 2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren ezarpenaren mugarri garrantzitsuenetako bat izan da. Hala ere, espazio horretarako sarbidea ez da behar bezain intuitiboa bizkaia.eus-en webgunearen arkitekturaren barruan; beraz, beharrezkoa da Atariaren ikusgarritasuna eta sarbidea hobetzea.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Parte hartzeko atari berri bat diseinatzen ari gara, 2025ean eskuragarri egongo dena.

1.3 jarduera- FORU-ESTRATEGIAK, -PLANAK ETA -ARAUAK LANTZEAN PARTAIDETZA SUSTATZEA, AHAL DEN NEURRIAN NAHITAEZKO PARTAIDETZA-PROZESU ADMINISTRATIBOETATIK HARATAGO JOANEZ

Justifikazioa eta helburuak	Foru-estrategiak eta -planak funtsezko tresnak dira Bizkaiko gizartearen premiei eta lehentasunei erantzungo dieten politikak diseinatzeko. Plangintza-tresna horietako gehienek sektoreko eragile garrantzitsuen parte-hartzea barne hartzen dute dagoeneko, baina egokitze jotzen da prozesu horietan herritarren iritzia txertatzea, bai eta parte-hartzeari balioa ematea ere, funtsezko tresna gisa, bai foru-estrategiak eta foru-planak diseinatzeko, bai gobernatzeko. Jarduera honen helburua da herritarren eta gizartearen partaidetza sendotzea eta sistematizatzea foru-estrategiak, -planak, eta -arauak egiteko prozesuetan, bai eta partaidetzari balioa ematea ere, prozesu horien funtsezko tresna gisa.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Kontsultarako eta jendaurrean jartzeko ohiko administrazio-prozesuez gain, berariaz sustatu da partaidetza Bizkaiko Foru Errepideetako Zeharbideen Inbentarioa eguneratzeko prozesuan.

1.4 jarduera- FORU-ZERBITZUAK DEFINITZEAREKIN, BIRDEFINITZEAREKIN ETA HOBETZEAREKIN LOTUTAKO PARTAIDETZA SUSTATZEA

Justifikazioa eta helburuak	Erakunde publiko gehienak beren zerbitzuak birdefinitzeko eta hobetzeko prozesuak lantzen ari dira, helburu bikoitzarekin: herritarren beharrei eta igurikimenei hobeto erantzutea, eta, ahal den neurrian, zerbitzu horiei lotutako administrazio-izapideak sinplifikatzea, herritarrentzat intuitiboagoak eta errazagoak izan daitezen. Zerbitzuak birdefinitzeko eta hobetzeko prozesu horiek gero eta irekiagoak dira, eta horrek esan nahi du eragile garrantzitsu guztiak sartu behar direla prozesu horietan, baita zerbitzuaren unitate arduraduna, gaian adituak diren pertsonak eta zerbitzuaren erabiltzaileak izango direnak ere.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Prozesu nabarmen gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren aplikazio mugikorren ebaluazioarekin lotutakoa aipa daiteke.

1.5 jarduera- EZTABAIDA-PARTAIDETZAN SAKONTZEN JARRAITZEA

Justifikazioa eta helburuak	Parte hartzeko modu kualifikatu eta berritzaile gisa eztabaida-foroak garatzea izan da 2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren ezarpenaren beste mugarrietako bat, eta joera garrantzitsua da herritarren parte-hartzearen arloan. Horrelako prozesuak beste partaidetza-tresna batzuen osagarri izan daitezke eta izan behar dute, eta bereziki egokiak dira erronka konplexuekin lotutako eztabaidei ekiteko. Helburua da eztabaida bidezko partaidetza-prozesuen kopurua areagotzea Partaidetzarako III. Planaren aplikazioaren esparruan.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Kontuak eman dira Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu beharreko partaidetzari dagokionez egin zen eztabaida-foroan hartutako konpromisoei buruz. Horren gaineko txosten bat argitaratu da Partaidetza Atarian, eta zuzenean bidali zaie foroan parte hartu zuten pertsonei. Boluntariotza aktibatzeke foroaren emaitzak ere itzuli dira, eta BizkaiaGarak sustatu beharreko 12 konpromiso hartu dira. Horrez gain, hurrengo eztabaida-foroaren plangintza egin da (2025eko otsailean gauzatuko da). Herritarrek Bizkaiko etxeko hondakinen kudeaketan duten inplikazioa izango du aztergai foroak.

1.6 jarduera- “BIZKAITARREN SAREA” SENDOTZEA PARTAIDETZA-AUKERAK ZABALTZEKO KANAL GISA	
Justifikazioa eta helburuak	2020-2023ko Partaidetzarako II. Planean jasotako gomendioetako bat da komunikazioa-ahaleginetan sakontzea, Bizkaiko herritarrak partaidetza-prozesuetara hurbiltzeko. Zentzu horretan, funtsezkoa da Bizkaitarren Sarearen aldeko apustua egiten jarraitzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan parte hartzeko interesa eta konpromisoa duten pertsonen kopurua handitzeko tresna gisa.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Bizkaitarren Sareak hiruhileko buletinak egiten eta zabaltzen jarraitzen du, bai eta berariazko alertak parte hartzeko aukerak ezagutarazteko ere. 2025ean, kanpaina bat egingo da pertsona gehiagok Bizkaitarren Sarearekin bat egin dezaten.

1.7 jarduera- HAURREN ETA NERABEEN PARTAIDETZA SUSTATZEKO PROIEKTU ESPEZIFIKOA GARATZEA

Justifikazioa eta helburuak	Haurren eta nerabeen parte-hartzea eskubide bat da. Horrela jasotzen du, printzipio gidari gisa, Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak, eta estatuei eskatzen die “bermatzeko haurrek askatasunez adieraz ditzaketela beren iritzia eragiten dieten gaiei buruz, eta beren iritzia kontuan har daitezela”. Gainera, haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzea herritar konprometitu eta toleranteagoen alde inbertitzea da, eta beraz, gizarte demokratikoago baten alde.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Ekimen hau abian jarri da Bizkaiko haurren eta nerabeen begirada jarduera publikoaren plangintzan txertatzeko, haien iritzia ezagutzeko eta baloratzeko, haien balio demokratikoak indartzeko eta sendotzeko, eta haurren eta nerabeen gaitasunari eta eskubideei buruzko gizarte-sentsibilizazioa bultzatzeko. Diagnostikoa egin da Bizkaiko Haur eta Nerabeen Toki Kontseiluen errealitateari buruz. Guztira, horrelako organo bat duten Bizkaiko 20 udalerrri identifikatu dira. Diagnostiko horren ondorioak ikusita, laguntza-zerbitzu bat jarri da abian, udal gehiagori beren kontseiluak diseinatzen eta abiarazten laguntzeko. Lankidetzan ari garen lehenengo udalak Balmaseda, Bermeo, Etxebarri eta Turtzioz dira. Hitzarmen bat sinatu da UNICEFekin, Bizkaian haurren eta nerabeen parte-hartzea bultzatzeko. Urrian topaketa bat egin zen, eta, bertan, haurrek eta nerabeek beren udalerrietan biztanleriaren sektore horien parte-hartzea hobetzeari buruz jardun zuten. Gainera, UNICEF lankidetzan aritzen da politikariei eta udal-teknikariei zuzendutako prestakuntzan eta gai horri buruzko sentsibilizazio orokorreko ekintzetan.

2.1 jarduera. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN PARTAIDETZAREKIN LOTUTAKO BARNE-ANTOLAMENDUA TAXUTZEA, BERE GARAPENA ETA HOBEKUNTZA BULTZATZEKO

Justifikazioa eta helburuak	2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren azken ebaluazioan jasotako hobekuntza-esparruetako bat da parte-hartzea gehiago sistematizatzeko beharra, organo egonkorretan zein Foru-sailek sustatutako unean uneko partaidetza-prozesuetan garatutako partaidetza-jarduerak ahalik eta homogeneousizazio handiena izan dezaten. Sistematizazio horri ekiteko, beharrezkotzat jotzen da Foru-sailen barruan partaidetza antolatzen eta sustatzen lagunduko duen barne-arauren bat izatea.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ABIAN JARTZEKO PROZESUAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Jarduera honen diseinuan ari gara lanean.

2.2 jarduera- FORU-LANGILEEN PARTAIDETZA-ARLOKO GAIKUNTZA AREAGOTZEA

Justifikazioa eta helburuak	Aldundiko langileen inplikazioa funtsezkoa da parte hartzeko organoek, guneek eta prozesuek espero den balioa emateko. Ezinbestekoa da pertsona eta ekipo sentibilizatuak eta gaituak izatea herritarren eta gizartearen partaidetzak berekin dakartzan jarduerak diseinatu, dinamizatu eta ebaluatu ahal izateko. Nahiz eta 2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren barruan pausu garrantzitsu bat eman zen gaikuntzari dagokionez bideo-pilulen bidez eta “Bizkaiko Foru Aldundian Partaidetza sustatzeko gida metodologikoa” eginez, beharrezkotzat jotzen da jarduera hori areagotzea III. Planaren esparruan.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ABIAN JARTZEKO PROZESUAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Jarduera honen diseinuan ari gara lanean.

2.3 jarduera- ALDUNDIAK PARTE HARTZEKO SUSTATZEN DITUEN ORGANOEN, ESPAZIOEN ETA PROZESUEN FUNTZIONAMENDUA HOMOGENEIZATZEA ETA SISTEMATIZATZEA

Justifikazioa eta helburuak	2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren azken ebaluazioan jasotako hobekuntza-esparruetako bat da parte-hartzea gehiago sistematizatzeko beharra, organo egonkorretan zein Foru-sailek sustatutako unean uneko partaidetza-prozesuetan garatutako partaidetza-jarduerak ahalik eta homogeneizazio handiena izan dezaten.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ABIAN JARTZEKO PROZESUAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Jarduera honen diseinuan ari gara lanean.

2.4 Jarduera- PARTAIDETZA-JARDUERETAN KOMUNIKAZIO ARGIA NEURRI HANDIAGOAN TXERTATZEA

Justifikazioa eta helburuak	Komunikazio Argiak informazio esanguratsua erraztasunez eta eraginkortasunez helarazten du, eta pertsonak ulertzeko duten eskubidea benetan gauzatzen laguntzen du. Bizkaiko Foru Aldundia aspalditik ari da arlo horretan lanean (eta, bereziki, irakurketa errazaren arloan), baina oraindik ere bada hobetzeko tarte bat, komunikazio argia partaidetza-jardueretan gehiago txerta dadin, komunikazioa erraztuz parte hartzeko eskubideari zein parte hartzeko organo, gune eta prozesuen emaitzak eta inpaktua ezagutzeko eskubideari dagokienez.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	Komunikazio Argia modu orokorrean aplikatzen da BFAk sustatzen dituen parte-hartze prozesuetan, maila hauetan: ▪ Testuinguruan jartzeko eman beharreko informazioa. ▪ Parte hartzeko erabiliko diren tresnak. ▪ Egindako partaidetza-prozesuei buruzko emaitzak itzultzeko eta kontuak emateko.

3.1 jarduera- BIZKAIKO TOKI-ENTITATEETAN PARTAIDETZA SUSTATZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN ILDOARI EUSTEA

Justifikazioa eta helburuak	Bizkaiko udalerrien % 70ek 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Oro har, giza-baliabide eta baliabide ekonomiko eta tekniko mugatuak dituzten udalerrak dira eta laguntza behar izaten dute parte hartzeko prozesuak diseinatzeko eta inplementatzeko. Bestalde, eskualde-mailako partaidetza-prozesuek balio handia eskaintzen dute lurraldeko garapen jasangarriko (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa) erronkei erantzuna emateko eta bertako eragileen arteko lankidetzak sustatzeko. 2022tik aurrera, udalerrientzako eta mankomunitateentzako dirulaguntzen lerro bat jarri da abian, herritarren eta gizartearen parte-hartzea bultzatzeko. Ekimen horrek emaitza bikainak eman ditu eta mantendu egin behar da.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	2024ari dagokion deialdia garatzen jarraitu dugu, eta guztira 50 proiektu babestu ditugu. 2025eko deialdia diseinatu da, abenduaren 23an BAO-n argitaratu zena (132/2024 Foru Dekretua), eta 400.000 €-ko zuzkidura du 3 jardun-arlorentzat: ▪ Parte hartzeko prozesuak. ▪ Parte hartzeko kanal digitalak. ▪ Parte hartzeko foroak.

3.2 jarduera- BIZKAIKO TOKI-ENTITATEEN ARTEAN PARTAIDETZA-ARLOKO LANKIDETZA ETA IKASKUNTZA PARTEKATUA BULTZATZEA

Justifikazioa eta helburuak	Bizkaiko toki-entitateen partaidetza-proiektuei sostengatzeko laguntza ekonomikoez gain, arlo horretan lankidetzaz eta ikaskuntza partekatua sustatzeko beste mekanismo batzuk garatzeko beharra eta aukera ikusten da.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	2024ko azaroaren 18an, herritarren eta gizartearen parte-hartzeari buruzko II. Topaketa egin zen Bizkaiko udalerri eta mankomunitateekin. Bertan, Bizkaiko hogeita hamar bat udalek jardunbide egokiak eta lankidetzaz-esparruak bateratu zituzten, parte-hartzearen arloan hobetzen jarraitzeko. Topaketak aukera eman zuen Nafarroako Gobernuak partaidetza integraleko prozesuak kudeatzeko izandako esperientziak ezagutzeko, bai eta Derion eta Mundakan gauzatutako toki-proiektuak ere.

3.3 jarduera- OGP EUSKADI ETA ALDUNDIAK BESTE ERAKUNDE ETA ERAGILE BATZUEKIKO LANKIDETZAREN BIDEZ SUSTATZEN DUEN PARTAIDETZA HOBETZEA AHALBIDETZEN DUTEN BESTE EKIMEN BATZUETAN AKTIBOKI PARTE HARTZEN JARRAITZEA

Justifikazioa eta helburuak	OGP (Open Government Partnership) nazioarteko izaerako ekimen bat da, gobernantza gardena, parte-hartzailea, inklusiboa eta arduratsua sustatzen duena, gobernu “irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentiberagoak” bultzatzeko mekanismoak garatuz eta ebaluatuz. Gaur egun, 75 herrialde eta 150 tokiko gobernu daude barruan, bi mila milioi pertsona baino gehiago eta gizarte zibileko milaka erakunde ordezkatzan dituztenak. Euskadi 2018an hautatu zuten Gobernu Irekirako Aliantzaren (OGP) tokiko gobernuen programan parte hartzeko. Harrezkero, bi ekintza-plan egin eta ezarri ditu, elkarlanean diseinatutako konpromiso zehatzekin. Plan horietan, OGP Euskadiren partaide diren erakundeek eta eragileek parte hartzen dute, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak, zeina bere talde sustatzailekoa baita.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	OGP Euskadi ekimenean parte hartzen jarraitzen dugu, 2021-2024 aldirako II. Ekintza Planean jasotako proiektuen (konpromisoen) bidez.

4.1 jarduera- “BIZKAIAGARA” EKIMENA GARATZEA ETA DUEN BALIOA NABARMENTZEA, BIZKAIKO HERRITARREK GIZARTE-AKTIBAZIO ETA – KONPROMISO HANDIAGOA IZAN DEZATEN

Justifikazioa eta helburuak	BizkaiaGara herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta lan komunitariorako gune bat da eta lurraldeko pertsonen, erakundeen eta organizazioen zerbitzura dago. Herritarren ekintzako ekosistema bat, Bizkaian boluntariotza eta lan komunitariorako eredu berri batekin konprometitutako pertsonak, organizazioak, enpresak eta erakundeak batzen eta konektatzen dituena. Ekintza- eta harreman-gune bat, bizia eta irekia, proiektuak proposatu, ikertu, partekatu eta bizkortzeko. BizkaiaGara hainbat ildo estrategikotan aritzen da: ▪ Sentsibilizazioa. ▪ Bitartekaritza. ▪ Gaikuntza eta aholkularitza. ▪ Proiektuen garapena. ▪ Aitortza. ▪ Komunikazioa. ▪ Barne-komunikazioa eta atxikipen-sarea Bizkaiko Foru Aldundiak eta BizkaiaGarako gainerako sustatzaileek uste dute beharrezkoa dela ekimen horren ekosistema eta jarduerak garatzen jarraitzea, bai eta ekimen horrek emandako balioa aitortzea eta nabarmentzea ere.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	▪ BizkaiaGara SARIAK, boluntariotzarekin lotutako pertsonen, erakundeen eta proiektuen inplikazioa eta konpromisoa aitortzeko ekimena. Oraingo honetan, Txorierrin egin da. ▪ BEGIRALDATU, Bizkaiko batxilergoko eta erdi-mailako heziketa-zikloetako ikastetxeetan hezkuntza-tailerrak garatzeko ekimena. 2024an, 41 tailer egin dira, eta, guztira, 97 saio egin dira. Horietan, Bizkaiko 6 udalerritako 11 ikastetxetako 951 ikaslek parte hartu dute. ▪ ZENTROEN ARTEKO EKINTZA, gazteak aktibatzeke tokiko ekintza, udalekin eta hezkuntza-zentroekin elkarlanean garatua. Aurten, Barakaldon egin da eta 3 institutuk hartu dute parte

Egindako jarduerak
2024/12/31ra arte
(jarraitzen du)

- TANTA HOTZAGATIKO LARRIALDIETAN MODU KOORDINATUAN ARRETA EMATEKO ETA JARDUTEKO sistemak artikulatzea. Herritarren lankidetza eskatu zen.
- “ORAIN DEN ETORKIZUNA. Geroaldia herritarren ekintzatik abiatuta eraikitzea” prestakuntza.
- Herritarrak aktibatzekeko INFORMAZIO-HITZALDIAK, herritarrei zuzenduak, aurrez aurre eta autoprestakuntzako formatuan. 2024an, guztira, herritarrak aktibatzekeko aurrez aurreko 5 hitzaldi egin dira, aurretiazko esperientziarik ez duten eta boluntario gisa laguntzen hasi nahi duten herritarrei zuzenduta, eta 75 pertsonak autoprestakuntza egin dute, eduki berberak landuta.
- Elkartekudeaketako eta boluntarioak dinamizatzeko aholkularitza-materiala gaurkotzea.
- BALIOKO HAUSNARKETAK, iritzi-artikuluak eta esperientziak sortzea gizarte-partaidetzari eta komunitate-aktibazioari buruz. Hainbat sektoretako pertsona erreferenteen 5 BEGIRADA argitaratu dira herritarren aktibazioari buruz; eta boluntario gisa beren esperientzia azaltzen duten 5 PROTAGONISTA ere argitaratu dira.
- SENTSIBILIZAZIO-ekintzak UNIBERTSITATE INGURUNEAN: Boluntariotzari buruzko Unibertsitate Azokak eta UnikideFaktori.

4.2 jarduera- BIZKAIKO ENPRESEK BOLUNTARIOTZAREKIN DUTEN KONPROMISOAN SAKONTZEA

Justifikazioa eta helburuak	Bizkaiko enpresak gero eta konprometituago daude garapen jasangarriarekin. Konpromiso hori islatzen da Erantzukizun Sozial Korporatiboko eta ESGko (ingurumen, gizarte eta gobernantzakoa) estrategiak eta planak diseinatz, bai eta estrategia eta plan horiek garatzen dituzten ekintzen bitartez, BizkaiaGararen lehentasunezko lan-ildoetako bat enpresen konpromiso hori baliatzea da, lurraldean eragin handia duten boluntariotza-proiektuak garatzeko.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	▪ BUSINESS TOPAKETA, helburu duten enpresekin gauzatutako topaketa. 2025. urtearen hasieran enpresekin egingo den Topaketa diseinatu da. ▪ Enpresekin 5 topaketa egin dira BizkaiaGararen Bisita Planaren eta Aliantza Sarearen esparruan. ▪ BECi Boluntariotza Korporatiboaren Plana definitzen laguntzea ▪ Hainbat gizarte-erakunderekin ezarri da lotura boluntariotza korporatiboaren arloko jarduerak gauzatzeko. ▪ “Boluntariotza korporatiboko plan bat ezartzeko lehenengo urratsak” izeneko FAQ (askotan egindako galderak) egin da.

4.3 jarduera- BOLUNTARIOTZA SUSTATZEA INGURUMENAREN ETA KULTURAREN EREMUETAN

Justifikazioa eta helburuak	Klima-aldaketaren aurkako borroka da mundu-mailan dugun erronka global handiena. Bizkaiak abiapuntu erlatibo ona du arlo honetan, baina trantsizio energetiko-klamatikoa bizkortu behar dugu eta, zehazki, deskarbonizazio-prozesuak; horretarako, ezinbestekoa da herritarrak inplikatzeko eta lankidetzan aritzea. Aldi berean, 18. GIHa (Hizkuntza eta Kultura Aniztasuna) 2030 Euskadi Agendan sartzeak berekin dakar garapen pertsonalean eta komunitarioan kulturak duen garrantzia eta gizarte-eraldatzailerik gisa duen eginkizuna aitortzea. Ingurumenaren eta kulturaren eremuetan boluntariotzako jarduerak sustatzea funtsezkoa da lehen aipatutako erronkei eta aukerei ekiteko.
Jardueraren gauzatze-egoera 2024/ 12/ 31n	ARIBIDEAN
Egindako jarduerak 2024/12/31ra arte	▪ BizkaiaGara EGUNA, ingurumeneko boluntarioen ekintza. Herritarrei egindako deia gure ekosistema kontserbatu eta zaintzeko erronka sozialari erantzuteko. Jarduera irailean egin zen, eta jende guztientzako garbiketa-jarduerak eta ingurumenarekiko sentsibilizazio-jarduerak eta -tailerrak izan ziren: erakusketak, tailerrak, jokoak, hitzaldi zientifikoak, informazio-standak, laborategi mugikorrak... 2024ko BizkaiaGara Egunean 200 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten eta 500 kg hondakin inguru bildu zirela kalkulatu da, gehienbat erabilera bakarrekot botilak eta plastikoak, baita 4.000 zigarrokin inguru ere. ▪ EZ LEKURANTZ, euskara arloko erakundeekin egindako topaketa. BizkaiaGarak hainbat eragile (udalak, fundazioak, elkarteak, aldundia...) gonbidatu zituen aktibaziotik abiatuta euskararen ekosistema sustatzeko dauden aukerak eta erronkak aztertzeko. "Ez Lekurantz: Basamortu emankor baterantz" izeneko saioan eragileok elkarlanaren alorrean eta ikuspegi kolektiboan sakondu zuten eta, topaketaren helburuari dagokionez, oztupoak identifikatu eta erronka komunak ezarri zituzten.